

Juan A. Urbeltz

Ikerfolk-eko arduraduna

## Alardea dela eta

■ Azken hogeita hamar urteotan askotan gertatu den bezala, beste polemika bat sortu da emakume batzuek jai tradizional batean parte hartzeko eskatu ondoren. Oraingo honetan, Irunen San Pedro eta San Martzial jaietan egiten den *alarde* armatuaren inguruan sortu da eztabaida, eta badirudi emakume horiek armak bizkarrean egin nahi dutela desfilea. Badakit polemika horrek giroa berotu duela, eta nork bere arrazoiak eman dituela; zerbait irakurri dut, baina, zoritxarrez, ezin izan dut dena gertutik jarraitu. Horregatik, ohar labur hauek idatzi ditut, eztabaida horretan nire ekarpena egiteko.

Tradizioa (eta aldatzeko edo iraunarazteko beharra) beti agertzen da eztabaida jakin batzuen erdi-erdian. Eztabaidok, suhartasun handiz egiten baitira, argi uzten dute sakonean badagoela kezka bat, jendea ez dagoela kontent, agian nolabaiteko lasaitasun sozial eta politikoa falta delako; baina ez dagokigu guri hori aztertzea. Esandakoa egia izatera, hori litzateke sakoneko eztabaida, orain arte inoiz ere egin ez dena: gure herriaren egoera politikoa. Bestela, sortutakoaren gisako edozein eztabaida anekdota hutsa baino ez litzateke izango, herri batek, eratzen duen gizartean egokiro orekatuta badago, etorkizunearan konfiantza badu eta argi ikusten badu bere proiektu politikoa, ez dituelako etengabe auzitan jartzen aurrekoengandik jasotakoak (ez, behintzat, era horretan); izan ere, logikoki, batik bat beste gai batzuk izango lirateko interesgarrienak herri horrentzat.

Eta hori guztia esanda, berriro ere ikusten dugu paradoxa hau: tradizioa (historikoa ez den memoria klase bat) beti historian oinarrituta defenditu (gaizki defenditu) ohi da, ohituran izan beharrean. Eta ohituran eta berorrek sakonean daukan esanahi guztian datza horrelako jai agerpedieen zentzua; emakumeak horiekiko halako distantzia eta zurtasuna ezarri du, horren bidez beraren-

Tradizioa (historikoa ez den memoria klase bat) beti historian oinarrituta defenditu (gaizki defenditu) ohi da, ohituran izan beharrean

tzat izan ohi duten esanahia zehatz adieraziz. Eta gizonek, zezenek eta armek protagonizatutako ohitura *basati* horiek guztiek emakumearentzat izan duten balioa egoki neurtuta gelditu da inoiz ere horietan parte ez hartzean; izan ere, debekatzerik izan ez badu ere, sekulakoak egin baititu bere ingurunean inork ere asmorik izan ez zezan haietan parte hartzeko. Halaxe gertatzen da zezen *entzietzerroetan*: inolako premiari gabeko arriskua da, antzua (heroiaren mitoa eratze-ko egina), eta ezin du inork defenditu (ergel jokatuta ez bada) emakumeen konkista edo lorpen gisa.

Arma *alardeetan* antzeko zerbait gertatu da. Emakumeak ez badu horietan parte hartu ez da izan inposizio maskulino - patriarkalagatik; aitzitik, emakumeak berezko higuina die armei eta gerrari (neure egiten dudana argudio bakarra). Gainera, Irungo kasu horretan (baita Hondarribian ere), gaizki planteatutako aldarrikapen historiko batean dago oinarrituta. *Alarde* izen jenerikoa izanagatik, *erromeria militar* horien helburua ez zen baitaila baten oroitzearen historikoa egitea, udal esparruaren jabetza baieztatzea baizik (hain zuzen ere, bertako ermita garrantzitsuenek zehazten zuten mugan). Horregatik, urtean behin joan behar zen erromerian ohitura betetzera, hau da, muga sinboliko horretatik tiro egitera: horrela, mundu guztiari adierazten zitzaion noraino iristen zen Irun hiria (San Martzialgo ermita), eta noraino Hondarribia (Guadalupeko ermita). Emakume batzuek zezenen aurretik korrika egin edo armak hartu nahi izateak ez du aparteko garrantzirik, baina kezkarriagoa da *entzietzerro* batean korrika egitea edo armak hartzea -ohitura bat aldatzeko-, emakumeen eskubide urratu bat ezagutzeko exijentziatzat jo nahi izatea. ■

Erredakzioaren itzulua

Ramon Labaien



## Biolentzia mahaia

L ehegailu bat berriro Donostian. Mutiko gazte bat erdi hila, bi zangoak galduak, izan zituzkeen ametsak zeharo deuseztuak, etorkizuna apurtua, horiek izan dira ekintza horren zorizagitzoko lehen ondorioak. Astakeria bat eta garrantza. Egiaz, gehiengo gara Euskal Herrian horrelako moduekin ados ez gatozenak. Norbaitek ikusten badu Urtegi Jauna, zakur gisa garbitzek zer ekarriko hokeen Euskal Herriaren askatasun, zorion, pake eta gozo bizitzeari, esan beza, alai badu. Euskaldun xehearrentzat, Eusko Abertzaletasunaren izenean egiten diren horrelakoek gauza bakar bat lortzen dutelako, abertzaletasun horren ahulizeta eta zikintzea izanik. Gaur egun ez dira falta Pake Mahaia Euskal Herrian, alde guztietan pake egarria delako gero eta gehiago nagusi. Han eta hemen, noizbait, gertatzen da pakearen aldeko bidaia horretaz aprobetxatuz, eusko abertzaletasunari erasotzen zaiola subliminalki eta hori ere salatu behar den zerbait da. Ikusiz zein gutxi ari garen aurreratzen pakearen bidean, pentsatu liteke gaur behar duguna, biolentzia gaiaren inguruan mahaia bat sortzea litzatekeela. Alde batekoak eta besteok aztertu dezaten, biolentzian sustraizten diren ekintzek Euskal Herriari eskeintzen dizkieten abantailak, abantailarik baldin bada eta desastre, galera eta lotsak bestetik, azken horiek, denok begien aurrean ditugunak. Baliteke, horrelako eztabaida batek, besterik ez bada ere, Euskal Herrian ditugun konportamenduen razionaltasun-neurria argiago uztea.

Txillardegia



## Kondairaren isuria

A libistek izan ditugu Cymru-tik; Gales-tik, alegia.

Mende honetan barrena lehenengo aldiz, beherako joera gorako bihurtu da. Cymru-tarrak hizkuntza berreskuratzeko urratsak ematen hasiak dira.

Ezaguera mailan, aurrenik, 1981ean tasa % 18,9 bazen; 1991n % 18,7 kokatu da. Beherakada orokorrari tenk eginez (1951n, % 28,9 zen). Adierazgarriagoa, halere, beste hau: gazteen artean (alegia, 3 urtetik 15 urterako multzoan) gauzak gorantz doaz: % 18,0 1981ean, % 24,9 1991n. Gehiago dira gazteen artean hizkuntza ezagutzen dutenak, herri osoan batera baino.

Joera orokorra da. Iparraldeko Gwynedd nekazarai-arean, % 61 orokorrari, % 77,3 dagokio gazteen artean. Eta Cardiffen (hango Bilbo, nolazpait esateko) galesdunak bikoiztu egin dira azkeneko 40 urte honetan (17.236 elebidun 1991n).

1960 inguruan hil ziren azkeneko galesdun elebakarrak. Egia da. Baina gaur dauden 510.920 elebidunek gogo bizia dute, lehenengo aldir, beren *gymraeg* zeltikoa indartzeko; eta, oro har, normalizatzeko. Gu baino ahulago dauden somaten da: ordu gutxiago Telebistan guk baino, 400 bat liburu urtean (gure 1.200en aldean), eta galeseko Unibertsitatek ez dago.

Baina pizkunde zantzuak ez dira falta. Adierazgarri gertatzen da, alde askotatik, orainutsu Bretainiako hizkuntzaren kondaira zehatz bat (Dokotorego Tesia, hain zuzen) galesez agertzea eta Cymrun bertan.

## L A P H I T Z A

